

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



■ HERNANI AMHER

## 'La jaula de oro' gaur, Biterin

Bigarren saioa izango du gaur, Inmigrazineak: *La jaula de oro* pelikula jarriko dute, 19:00etan Biterin, doan. Diego Quemada-Diezen filma da, Mexikon grabatua, eta kontatzen du herritik alde egiten duten bi neraberren eta haiekin elkartzen den indigenaren istorioa. Arriskuz betetako bidaia egin behar dute. ■

■ ARANO TAILERRA

## Berrerabiltzen ikasteko zita, gaur

Gaur daukate bigarren saioa Aranon, *Dakienak ez dakienari erakutsi* egitasmoaren barruan: berrerabiltzen, berreskuratzen eta zaharbertzen ikasteko tailerra egiten dute, 18:00etatik 20:00etara, Maisuenean. ■

■ ASTIGARRAGA TAILERRA

## Gaurtik, konfiantza indartzeko tailerra

Gaur hasiko da konfiantza indartzeko tailerra, Astigarragako emakume feminista talde batek antolatuta. Kultur etxean izango da, 18:00etatik 20:00etara, eta doakoa da, baina izena eman behar da: kultur etxean, edo [aztifiemiak@gmail.com](mailto:aztifiemiak@gmail.com). ■

■ HERNANI GAZTETXEA

## Ikasle Jaialdia, gaur

Festa izango da gaur, Kontra-kantxa gaztetxean: Ikasle Jaialdia egingo dute, Ibaetako ikasle mugimenduak antolatuta. 19:00etan hasiko da, Zarata Selektion & Berbainde Sounden musikarekin; eta hiru kontzertu izango dira 22:00etatik aurrera: Trikona Banda, Eztanda eta Bassagain Soinu Sistema. ■

■ HERNANI OSAKIDETZA

## Erretzeari uzteko terapia laster, anbulatorioan

Erretzeari uzteko talde terapia antolatu du Osakidetzak, Hernaniko anbulatorioan. Datorren astean hasiko da, azaroaren 7an. Informazio gehiagorako, lehen mailako arretako medikuari eta erizainari galdetu. ■

■ GOIZUETA IKER SALABERRIA

## «Debuta beti izango da berezia, eta ea egun polita den, ikustera joango direnentzat ere»

Bihar egingen du debuta profesional mailan, Iker Salaberria esku pilotari goizuetarrak. Tolosako Beotibarren izanen da, 17:30etan hasita, eta Beñat Rezustarekin jokatu du, Danel Elezkano eta Iñigo Bikuñaren kontra. Debutaren atarian hitz egin du Kronikarekin, «oraingoz lasai».

**BIHAR egingo duzu debuta.**

**Azaldu al da urduritasuna?**

Oraingoz ez. Badakit egunean bertan pixka bat urduri egongo naizela, baina ea lasaitzen asmatzen dudana.

**Nola ikusten duzu zure burua, debuterako?**

Prestatzen aritu naiz, eta ongi ikusi naiz. Egun berezia izango da, baina ea dena ematerik daukadan, eta partidua irabazteko aukera dugun.

**Nolakoak izan dira azkeneko asteak, debuta egingo zenuela jakin zenuenetik?**

Asko aritu naiz entrenatzen, Jokin Etxaniz eta Jon Apeztexea prestatzaileekin, bai frontoian eta bai fisikoki. Urriko aurreneko astean jokatu nuen azkeneko txapelketa, eta orduetik entrenatzen aritu naiz soilik.

Astean bi egun izan dira frontoian, eta beste hiru fisikoa lantzen. Horretan nabaritu dut aldea, bereziki; karga fisikoa haunditu dela. Hasieran nekatu xamar egoten nintzen, baina orain ondo sentitzen naiz, eta nabaritzen da hobe-kuntza, alderdi fisikoan.

**Beste pelotari profesional batzuekin arituko zinen entrenatzen, ezta?**

Bai, bereziki Aspe nire enpresako aurrelariarekin aritu naiz: Erik Jakarekin, Joseba Ezkurdiarekin, Iker Irribarriarekin... Plantillako ia denekin aritu naiz, egia esan.

**Prestaketaz aparte, bizitza ere**



Iker Salaberria, aurreko partidu batean, Muebles Polque torneoan. Argazkia: Fundación Kantxa Pelotazale

**aldatu al zaizu, pixka bat?**

Bueno, bizitza aldatzen da, eza-gunagoa zarelako. Baina azken batean, ni lehengo berdina naiz, kanpoko jendearentzat aldatzen da hori, oihartzun gehiago daukazu. Nire eguneroko bizitzan, ordea, berdin dago dena.

**Rezusta izango duzu lagun. Luxuzko atzelaria, ezta?**

Bai, hala da. Beñat, atzelari onena ez bada, bi-hiru onenetakoa da, eta niretzako plazer haundi bat izango da, berarekin debutatzea. Ea berak niri laguntzen didan, eta nik ere laguntzen diodan pixka bat, partidua irabazteko.

Bera bezalako atzelari batek konfiantza ematen dizu, eta debuteko partiduan lasaitasun

hori izatea oso garrantzitsua da. Badakit berak bere lana egingo duela, eta ea nik ere neurea ematen dudana.

**Eta aurrean kontrario, maila haundiko beste pilotari bat.**

Bai, aurkari gogorra izango da Elezkano, binakako txapeladuna. Eta atzean Bikuña. Aurkari zailak dira, baina ea sorpresa ematerik daukagun.

Partidu gogorra espero dut, baina ea hasierako nerbioak lasaitzen ditudan, eta gozatzen dudana. Uste dut, gozatzea lortuz gero aukera izango dugula, irabazteko.

**Jende asko joango al da Goizuetatik, animatzeraz?**

Bai bai, niri 150 sarrera baino

gehiago erreserbatu dizkidate. Beraz, giro polita izango da. Ea egun polita den, beraientzat eta nire familiakoentzat ere, eta guztiok gozatzen dugun.

**Zer esan dizute ingurukoek?**

Batez ere, lasai egoteko eta disfrutatzeke, egun hori bakarra dela. Momentuz lasai nago, eta beraiek ere ari zaizkit laguntzen, horretan.

**Ikusmina sortu da herrian zure debutarekin, beraz.**

Badirudi baietz, ilusioa piztu duela. Eta hori polita da, baina ilusio horri kantxan erantzun behar zaio. Egun hori beti izango da berezia, eta ea polita den guztiontzat, eta bukaera ona ematen diogun. ■

9 urteak haundi

**Zorionak Zeian!**

Etrekoen partez

**Tripontzi jatetxea**

PINTXOAK  
RAZIOAK  
ENTSALADAK  
PLATER KOMBINATUAK  
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI  
943 555 724

**SANTA BARBARA JATETXEA**

Babarrun janak sakramentuekin, postrea eta edaria

**20 €**

Enkarguz

Santa Barbara, 2. Hernani  
Tel: 943 33 13 87

restaurante **ZUARDI**

igandeko menua

LEHENENGO PLATERA  
Perretxiko eta gula entsalada epela  
Urdaiazpiko iberiko razioa  
Etxeko foie micuit tostadatxoekin  
Plantxan egindako langostino taula

BIGARREN PLATERA  
Labean erretako legatza  
Esneko arkume errea  
Behi azpizuna foi sailtarekin

**30 €**

Etxean egindako poste goxoak...  
Ogja, rioja kiantza ardoa, rueda txuria, sagardoa...

orkolaga kalea, 2 hernani  
**943 33 60 56**



**GAUR** Euria izango da protagonista, goizean bereziki. Zerua ia erabat estalita egongo da, orduan. Arratsaldetik aurrera, atertzera egingo du, eta ostar-teak zabalzen hasiko dira. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, eta tenperaturak behera egingo du. **Min.14° / Max.19°**



**BIHAR** Lainotuta egongo da zerua bihar, eta euria ere egingo du, baina gutxiago; arratsaldean eta gauean izango da haundiagoa, euritarako aukera. Hegoaldeko haizea ibiliko da, eta hori esker, tenperaturak gora egingo du, pixka bat. **Min.14° / Max.22°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Etrebeste** Elcano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



## HERNANI UDALA

# Apustu-etxeei mugak jartzeko mozioa onartu du Plenoak

Aho batez onartu ziren, baita ere, Berdintasunerako III. Plana, eta Auzo Plazari eta Carmen Adarraga parkeari izen horiek jartzea ofizialki.



Aho batez onartu zuten, apustu-etxeei buruzko mozioa.

EZTABAIDA haundirik gabeko Plenoa izan zen asteartekoa, Hernaniko Udalean. Aho batez onartu ziren, puntu gehienak. Horien artean, Orain Hernanik aurkeztutako mozio bat, apustu-etxeei mugak jartzea eskatuz. Udal taldeak adierazi zuen, «premiazko neurriak» hartu behar direla, «ludopatiaren gorakadaren aurrean, batez ere gazteen artean», Jaione Aristregi bozeramailearen hitzetan.

Horrela, proposatu zuen apustu-etxeak jartzeko mugak ezartzea, haur eta gazteak maiz ibiltzen diren inguruetan; apustu-etxeak jartzeko lizentzia, gutxienez 30.000 eurokoa izatea; espazio publikoan apustu-etxeen kartelak jartzea debekatzea; edota ikastetxeetan jarduerak egitea, gazteen artean ludopatia ekiditeko. Xabier Lertxundi alkateak azaldu zuen, hori betetzeko lan egingo dutela, baina gerta daitekeela punturen bat ez izatea egingarria Udalarentzat, teknikoki.

Aho batez onartu zuten,

baita ere, izen ofiziala ematea herriko bi guneri: Auzo Plaza deituko da Lizeaga auzoan berri-ritu duten plaza, auzotarrek proposatu bezala; eta Carmen Adarraga izena hartuko du, atletismo pistaren ondoan estaltzen ari diren parkeak.

Eta aho batez onartu ziren, baita ere, ondokoak: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana; atxikipena ematea Giza Eskubideen Defendatzaileen Babesari; eta atxikitzea Gaztematikara, Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarrera, laguntza tekniko eta ekonomikoa jasotzeko.

### Lau urterako programa prest, Gobernu Taldeak

Aspaldiko kontu bat ere ekarri zuten Plenora, alkateak: «ustez publikoak ziren bideetan, bi obra egin zituzten, baimenik eskatu gabe; eta Udalak eskatu zien bi aldiz, 2010ean eta 2011n, aurreko egoerara buel-

tatzeko hori, baina ez zuten kasurik egin. Orduan, auzitara jo zuen Udalak, bideak publikoak ziren jakiteko; eta familia hark ere bai, Udalaren eskaeren kontra. Orain, epaileak Udalarari eskatu dio, 2010 eta 2011 urteetan egindako eskaerak berraztertu ditzala. Hori onartzea proposatzen zaio Plenoari». EH Bilduk, EAJ-PNVk eta PSE-EEk bozkatu zuten alde, eta abstenitu egin zen Orain Hernani.

Udalbiltzan Hernaniko Udalaren ordezkaria aldatzea ere onartu zuten, EH Bilduren botoekin, eta gainerakoekin: Koro Etxeberriak hartuko du Xabier Lertxundiren tokia.

Eta azkenik, mozio bidez, hurrengo lau urteetarako programa aurkeztea eskatu zion PSE-EEk, Gobernu Taldeari. Alkateak azaldu zuen, dagoeneko prest daukatela, eta hauteskunde-ziklo hau pasatakoan aurkeztuko dutela. Beraz, aho batez onartu zen mozioa. ||

## URUMEA ELIZA

# Egun seinalatueta, mezak bihar eta etzi

Hainbat elizkizun eskainiko dituzte Urumea bailaran, Santu Guztien eta Hildakoen Egunez.

SANTU Guztien Eguna da bihar, eta Hildakoen Eguna etzi; eta bi egun seinalatueta, hainbat meza izango dira, ohi bezala, Urumea bailaran.

Hernanin, hiru elizkizun izango dira bihar: Agustinetan aurrena, 09:00etan; Floridako San Jose Langilea elizan gero, 11:00etan; eta San Joan Bataiatzailean azkenik, 12:00etan. Eta larunbatean, beste bi meza izango dira: goizeko 09:00etan Agustinetan, eta arratsaldeko 19:00etan San Joan Bataiatzailea parrokian.

Ereñotzun, berriz, biharko

egunez izango dute elizkizuna, 10:00etan San Antonio elizan.

Eta Astigarragan, bi egunetan dauzkate hitzorduak. Bi izango dira bihar, Santu Guztien Egunez: goizeko 10:30etan Andre Maria elizan, eta eguerdiko 12:00etan kanposantuan. Eta etzi, hildakoen oroimenez, kanposantuan eskainiko dute elizkizuna, 11:00etan.

Gainera, etzidamu, faltetako igandeko meza izango da Andre Maria elizan, goizeko 10:30etan hasita; eta elizkizun horretan ospatuko dute, baita ere, familien meza. ||

## JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

### Egoismoa nagusi Kale Nagusiko 19an

Zuntz optikoa jarri nahi baduzue eta zuen toma Kale Nagusiko 19. portalean baldin bada, jakin ezazue jai duzuela.

Portal horretan bertan dagoen tomatik, bertako presidentek ez du beste etxeetara zuntz optikoaren kablea pasatzen uzten, berea omen dela eta ez beste inorena esanez popatik hartzera bidaliko zaitu sekulako oldarkeriarekin. Horixe pasa zitzaidan niri, joan den astelehenean zuntz optikoa jartzeko garaian.

Kale Nagusiko 19. portaleko presidente jaunari zera esan nahiko nioke: zuntz optikoa denona dela, ez zurea bakarrik, nahiz eta zure portalean egon toma. Ez dakit zergatik dagoen zure portal barruan, kanpoan egon beharko luke.

Baina ez zait iruditzen horrelako jarrera eduki beharko zenuenik zure bizilagunek kable eskas bat pasatzen uzteko eskatzen dizutenean. Zuntza jarri behar zuen langileak esan bezala, Gipuzkoa mailan ez du horrelako jarrearik behin ere ikusi, ezta gerurtatzen denik ere. Baduzu zer hausnartu.

Gauzak horrela, eskerrak eman 19ko presidente jaunari bere bizikidetzeta eta esku zabaltasunagatik; jarraitu horrela Presidente Jauna! Eta zorianak, lau haizeetara zabaldu duzu sekulako boterea daukazula Kale Nagusian, «hau nirea da eta ez dut inorekin konpartituko!». Bejondeizula motel!

Azkenik, serio jarrita, mila esker Errioguardako lagunei, zuren prestutasunagatik.

**Mikel Amondarain Lujanbio**

## IRAGARKI MERKEAK

**Neska euskalduna behar da** Hernaniko taberna batean lan egiteko. **Deitu: 679 476 992 (15:30-18:30)**

**Aulki elektrikoak salgai**, 1300€. Egoera onean. **Deitu: 679 152 034**

**Gutxi erabilitako konpresore trifasikoa salgai**. 500 €. **Deitu: 688 651 438**

**Pisua eta trasteroa salgai** Lizarraga kalean, Lizeagan, 2 logela, sukalde, sala eta komuna. **Deitu: 659 106 467**

**Iñigo Royo Masajista**. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,.... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

**ongi etorri**

IPINTZAKo sagardo kartan hamabostaldi honetako gonbidatu berezia **OLA sagardotegia**

**ola** SAGARDOTEGIA

**ipintza**

www.ipintza.com

**TXINTXUA JATETXEA**

Asteleheneetik larunbatera **EGUNEKO MENUA**

ASTEAN ZEHAR AFARIAK

ASTEZKO JAIEGUNETAN IREKITA

Larunbat gauak eta igandeak itxita

**TALDE HAUNDIENTZAKO ENKARGUZ IGANDEAN ERE IREKITZEN DUGU**

Zikuñaga bailara, 76 HERNANI 943 55 21 99 / 609 655 607